

Demokrazia: gehiengoa eta gutxiengoa

Euskaldunon Egunkaria, 1993-10-12: 2.

'Demokrazia', etimologikoki grekeraz 'demo', herri, eta 'krazia', aginte-tik dator, Greziako gobernuan herriak zuen partaidetza adierazteko dotrina aintzindaria. Gero, beste askotan bezala, hor entzuten dugu nonnahi eta nolannahi armatua, eta orain hitzaren izpiritu eder hura galdua, izena bakarrik, larrugorri, geratu zaigu lekuko. Demokrazia hitzak, badu, berak, zentzu ederrik, baina manipulazioa adjetiboak erantsiz dator orain: batzuk, *herri*, 'herri demokrazia', bilakatu dute; beste batzuk, *langile* demokrazia, *kristau* demokrazia eta *sozial* demokrazia ere. Gehienak, 'demokratak', baina gutxik aplikatzen dute egiatan bere izpiritua; sistema politiko honetan gehiengo botoak lortzen dituen partiduak agintea irabazten du *baina gutxiengoaren hitza entzun eta errespetatuz*. Zeren eta gehiengo handia, ikaragarria!, izan zuen Hitlerrek Alemanian eta Stalinek eta abar Sobietar Batasunan, eta ez zuten demokraziaren izpirik gorde. Aitzitik, handiak txikiak zanpatzeko komedia zaharra izan zen tiroz egin zutena Estatuan eta gero Europaren zatiketan. Gauza bera ari dira egiten harrez gero hizkuntzaz, kulturaz gutxiengoak diren herri osoak izan arren giza-eskubidez European libre izan behar dutenen aurka jokatzuz. 'Demo' honen izenean hainbesteko itxaropena jarria geneukan Euskal Herria ere hemen daukagu European eta baita politikak Estatuko eta herri barruko egoeretan ere 'demokraziak' duen jokoaren zepoan harrapatua.